

# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA

## IRUN-GO EUSKAL-LITERATURAKO SARIKETA

Irungo errikoetxeak agintariak antolatatu duten Euskal-Literaturako Sariketan, Jose M.<sup>o</sup> Etxaburu «Kaminazpi» idazleak irabazi dau lenengo saria, 3.000 pezetakoa, bere «Bri Jaiak eta San Martzialko Alardea» lanagaitik.

Ogei ta lau urteko mutil batek irabazi dau aipamen berezia (500 pezetakoa), «Buño emen...» lanagaitik. Idazle berri onen izena Uriz Erxegaray Joxe da, eta Beobin bizi da.

Loidi, Bordari eta Bitano'k egin dute mailko.

ANA MARIA EGIZABAL, ABESLARI TXAPELDUN BILBO'N


Bizkaik'o Eresi Konserbatorioko Sari Nagusian, Ana Maria Egizabal' ek iritxi du Lenengo Saria. Arenas' etako neskatxa onek landik ere bere balioa erakutsia du beste Letaketan. Oraingo ontan beste bi ziran lelaketa ontan jokatuak, eta oso lan ederra egin zuten biak ere.

Aurrez, Torrelavega'n Espainia guziko kantarien artean ere, Zar-

zuelatarako kantari leiketatan Teleskiferako lan-lekua irabazi zuan. Madrillen «La Traviata» eta «La Favorita» zarzuelak abestu zituan gero.

Madril'dik etorri zan Bilbo'ko sari au jokatzeko ta berriro Madrille-ra ta andik Valenzia'ra dijoa, beste uri ontan zarzuela bi oiek abestera.

Ikusten denez, ba-du alde guzietan bere kantu-eskolaren yatorasan izena. Bijoia orrelae bere lana goieneko tokian jartzen.



## Euskaldunen Alfabetizazioa

### KULTURAZKO LITERATURAREN BIDE URRATZEAK

Euskaldun den gizon orok altxa boza buruya Etxhuyen lengoajia izanenda fioria Prinze eta laun handiek orok haren galdia Eskribatuz halbalute ikasteko deitza. (Etxepare, 1545).

ZERUKO ARGIA'n 227 garren zenbakian asi genun saiolari jarraituko dugu.

Euskaldunik gienak beren hizkuntza ez dutela nahi esan digute. Beren gogoz uzten dutela guraso hizkuntza? Gienak ez-jakinean noski. Kontzientzi kultura bidez hartzen da. Estadaiek ofizialki lagundu dituzten hizkuntzat lotu dute batasuna ta indartu dute kultura. Ornit u dira kontzientziak. Norik utzi du euskerka euskal kulturaren kontzientzia batekin jabetu ondoren? Guro kulturaren irakaskuntzak bideratuko bagenitu ikusteko litzake ia zenbatak uzten duan guraso hizkuntza.

Kontuan izan beste hizkuntza batean, beharturik, irakatsi zitugela eskola, maiz tautik uleru ezarren.

Hizkuntza baten alde era askotara egin ditzake eta egiten da: batzuentzat aski da berena izatearen errazoi soilia, beste batzuek munduan gien zabaldua delako, bestok goxoa delako, edo latza delako; gustu guzietarikoak daude. Bakoitzak bere nahieren neurria hartu lezake. Gurari guzietara eratzten da hizkuntza bateganeko maitasuna edo begirapena. Ta ez da errazoi gutxi bizi dan bati iraurerazo nahia.

Hizkuntzen literaturarekin ere berdiria jasotzen da: nagusia, landuena, giartsuena, zerutisarena, sakonena, teknikoena, zientifikoena ta abar. Ta txiroena denean ere, maiz, aski da norperana izatea. Norperaren jatorriaren gunetikakoa. Norperanean arkitzen dugulako besterentetan ez dan gogo-miharen norritzko zorbait. Ta, baldin bada norbait norperanean bihotzarentzat gauza hunkigarriak arkitzen ez duena, jakinduririk ezarena da, edo besteala bihotz gogorkoriz. Lehengoago izan ditteko guok gure ikastaroak eratzeko eskubiderik ezaren ondorioakoa (norper herra ezagutzeko, nekezagoa baita norper burua ezagutzen); baita bigarrena askoz okerragoa da, bihotz gogorkorik ajolarik eza, zikoitzekia, zeren inoiz inungo herriak ez baita bururik jaso gizon zikoitzek gantik. Zikoitzek hotetakoak ditugu beren buruak kulturadun jo ta norper herriaren kultura ezagutzen ez dutelako, arro, euskera ta euskal literatura mespreziotzen dutenak. Bada anhitz hola gure alorrea. Adibidez, beren istudiotan ikasko zuten eta burutz ere gogoraziko dituzte La Fontaine edo Semanegoren alegiak, baita ez dute jakingo Bizentza Mogel eta Pascual Iturriaga nortzuk ziren, lan berdiria euskeraz egin dutelarik.

Frutas emateko sustraiak behar dira, sustaiak, norperari dagokion lurra ongi errotuak.

Ez Ez dugula literaturarik? Ez gu ibili geran eskoletan erakutsi digutenagaitik. Baina ordua da jakiteko, euskaldunok orain arte literaturari egin diogun jaramonarentzat literatura aberastegia ta ugariegia dugula.

Aski aspaldikoa dugu Etxeparek 1545'an argitaratu zuen liburuak, baita ere Joannes Leizarrakak 1571'an argitaratu zituan hirurak. Axular'ek 1643'an argitaratu zuen Gero hobereña bada ere, beste biak ez dira euskeraz idatzi diranak txarrenek; ez da gutxiagorik ere. Ez giñtako gaizki gaur argitaratzen diran txarrenek halek bezin onak balira.

Axularren ondoren, gure kulturazko literaturak, gorakada zoriontsu bat ezagutu duen. Ongi konprentzeko orain gainera, zeren Erkiaga adiskideak zion bozala: «Konpreni ezina ditekuan izkera ez du inortxok ere ezertarako nahi izanen». Ta haietan ez du bide nekogarririk arkituko alfabetizaziari ekitzen diot euskaldunak.

Euskaldunen alfabetizazioa honok ere izan ditu bere langilleak. 1761'an Kardabera'ek argitaratu zuen Euskeraren berri onak eta ondo eskribitzeko, ondo irakurteko, ta ondo lizagiteko Erregiak izeneko liburuxto bat, 1964'an Tolosako «Auspoa Liburutegiak» berriz argitaratu duena ta oraindik ere probetuzkoak dira.

Bestaldetik, Julien Vinson'ek ekin zion egiazko lan bati gure kulturazko literaturaren eszagupiderako, azkenean Essal d'une bibliografie de la langue basque izeneko lan batean 1891'an argitaratu zan bilduma. Manterola ta Michel bezalako biltzailerri ere ez digu gutxi zor.

Gorago, Nikolaos Ormaetxea («Orike») irten zan lehen literatura kondairarekin, ta euskeraz gainera: Euskal literaturaren aize edo edesti laburra. 1927'an «Euskal Esnalean» argia ikusi zuana. 1931'an Campion'ek eman zuan beste literatura kondairaren saio bat bere Euskaria (Décima serie, Origenes del pueblo Euskaldun. Tercera parte, Capitulo II). Mitxelena bere Historia de la Literatura Vasca, 1960'an. Eta 1961'an, izen berdiriarekin, Villasanten kondaira nagusia argitaratu zan. Azken bi hauek derri-gorretzkoak dituzte gure literaturaren kondaira ezagutu nahi dutenok, ta baita alfabetizazio kanpañak asuko direnak ere beretan arkituko dituzten lurreragaitik.

Baita halaz ere, alfabetizazio kanpañan arkituko dituzten libururik onenak antologizko bildumak izango dira. Ez da posible guzien berri ematea eta aski izango da premiazkoenak eta batez ere oraindik salgai arkitzen diranen berri ematea.

(2 garren artzilean jarraitzen du)

Le Groupe de Danseurs Basques **ANDRA MARI** se produira a :

- COMMERCY ..... 14 Juillet 1967 Vendredi
- SCHOTEN ..... 15 au 21 Samedi et Dimanche
- YVOIR ..... 22 au 23 Samedi et Dimanche
- PLOMBIEGES ..... 24 Jeudi
- LE THILLOT ..... 26 Mercredi
- ST REMY ..... 27 Jeudi
- SENONES ..... 29 au 30 Samedi et Dimanche

**PROGRAMME**

- DANSES DE GUYPEN (Avec huit danseurs)
  - a) Aquera
  - b) Azken-dantza
  - c) Donibane's zortziko
  - d) Urkil-dantza
- LURDUN'KO MATELOTA-DANTZA (Avec huit danseurs)
- TXISTI, SOLISTE, "MARTITU"
- DANSE DE LESBITO (Bongo) «NAKARRAANKA» (Avec huit danseurs)
- DANSES DE SOULE (ZUBEROA) (Avec cinq danseurs)
  - a) Basotzibak
  - b) Godelot-dantza
  - c) Gabote
  - d) Azken-dantza
- MAKIL TXIKI ET ZOR-DANTZA (Avec huit danseurs)
- CONTREPAS ET DANSES DES POMPES (Avec huit danseurs)

**II**

- DANSES DE BISCAYE (Avec huit danseurs)
  - a) Zortziko
  - b) Baxeko
  - c) Makil-dantza
  - d) Txen-Kamarko
- DANSE DES BOCHEUX (Avec huit danseurs)

## ANDRA MARI, Dantzari Taldearen Irugarren Ibilte Europarra

Orain 10 urte sortua dan Andra Mari Dantzari Taldeak ille ontako 13'an liden dan Prantzirumtz eta bide batez, Luxemburgo, Alemania, Belgika eta Suitzara ere elduko da. 23 dantzari eta 3 txistulari 7 uritan emango dute satoak. Urtek, onexek dira: Commercy, Plombières, Le Thillot, St. Remy eta Senones, Prantzian; Schoten eta Yvoir, Belgikan. Ibilaldia, batez beste, 5.000 kilometro luze da eta kilometro denak autobusean egingo dira. Europar elkar ezagutzea da ibilte onen oiburua, elkar ezagutu eta onela lagun egin, musika, abesti eta dantza errikolaren bidez.

